


Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko- sozialeko Zuzendaritzaren memoria 2023. urtea



HERRITARREN
PARTAIDETZA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Governantza Departamentua



Aurkibidea

Aurkezpena

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoa

2019-2023 Partaidetzarako Programa

2023rako planteatzen diren helburuak

2023ko ekitaldian landutako ekintzen laburpena

Ondorioak



Aurkezpena

Dokumentu honetan, **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak 2023an izaniko jarduna** jasotzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ibilbide orri bat ezarri zuen partaidetzarekin loturik legegintzaldi honetarako, zeina **Herritarren Partaidetzarako 2019-2023 aldirako Programan** jasotzen baita.

Programa honetan, **ekintza sorta** bat biltzen da, zeinak lagungarriak baitira erakundearen helburua lortzeko; hau da, Gipuzkoa hobea eraikitzeko eta herritarrekin lankidetzara egonkorra sendotzeko beharrezko elementu guztiak biltzen joatea. Era berean, proposatzen da espazioak sortzea eztabaidarako, proposamenak jasotzeko eta foru erakundeak edo gizarte zibilak abiarazten dituzten ekimen guztiak kontrastatzeko, eta, horri guztiari esker, herritarrak, herritarren eta udalen erakundeak, Erakunde arteko Espazioa eta Gipuzkoako Foru Aldundiko bertako zuzendaritzak eta departamentuak balioestea eta ahalduntzea.

Programan jasotzen diren **49 ekintzak oso lotuta daude bata bestearekin** 408 konexioren bidez, eta ez da identifikatzen loturarik gabeko ekintzarik.

Aipatzekoa da 2023. urtea **trantsizio eta balorazio urtea izan dela**. Legegintzaldi aldaketarekin, Herritarren Partaidetzako Zuzendaritzak izena aldatu du, eta Gobernu Oheko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza deitzen da orain. Aurten, bi ebaluazio prozesu egin dira Herritarren partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Araua eta 2019-2023 Herritarren Partaidetzarako Programa bera.



Aurkezpena

Era berean, egindako balorazioan eta lortutako emaitzetan oinarrituta, etorkizuneko erronkak identifikatu ditugu, eta, gaur egun, buru-belarri ari gara lanean **2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa** hau diseinatzen, zuzendaritza honek legegintzaldi honetan gauzatu beharreko ekintza ildo estrategikoak lehenesteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019-2023 Partaidetza Programan jasotako beste alderdi bat **COVID-19aren pandemiak sorturiko eragina izan da**; hori hala izanik ere, **2023. urtea normaltasun urtetzat har daiteke**.

Hori horrela, 2023an **berreskuratu dira lan dinamika eta espazio presentzialak**, ekintzak modu hurbilagoan eta zuzenagoan garatzen edo aurreratzen laguntzen dutenak. Garrantzitsua da azpimarratzea gure Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuan baliatzen ditugun egiteko moduen garrantzia prozesuen emaitzena bezalakoa edo handiagoa dela; beraz, hurbileko eta konfiantzazko partaidetzak lotura pertsonalak eskatzen ditu, eta horiek aberastu egiten dira partaidetza presentzialarekin. Nolanahi ere den, COVID-19ak **izan du eragin positiborik ere partaidetza modu birtualak eta mistoak erabiltzeari dagokionez** (onlinekoa + presentziala). Gure ustean, modu horiek irizpide egokiekin erabiliz, osatu eta aberastu egiten dute herritarren partaidetza.



Aurkezpena

Ekintzak lehenesteari dagokionez, Zuzendaritzak hierarkizatu egin ditu ekintzak, eta hiru garrantzi maila ezarri ditu:

- **Lehentasun handia.** Nahitaez bete beharreko ekintzak, edo aurreko programaren jarraipena direnak.
- **Lehentasun ertaina/handia.** Interes maila handia duten ekintzak, edo aurreko programaren jarraipena direnak.
- **Lehentasun ertaina/txikia.** Berez interesgarriak izan arren, berriak izateagatik, atzeratzeko modukoak diren ekintzak, kasuak hala eskatzen badu.

Sailkapen horren arabera, 2023an guztira **33 ekintza** egin dira:

- **16 ekintzak lehentasun handia** dute: 1, 7, 8, 9, 10, 11, 14, 15, 16, 17, 20, 27, 40, 44, 46 eta 47.
- **12 ekintzak**, berriz, **lehentasun maila ertaina/handia** daukate: 2, 12, 13, 18, 21, 22, 24, 26, 28, 32, 41 eta 45.
- **5 ekintzak lehentasun ertaina/txikia** daukate: 19, 23, 29, 33 eta 49.



Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-23 aldirako Plan Estrategikoa

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Plan Estrategikoak adierazten duenez, legegintzaldi honetako lehentasunetako bat da **lankidetzako gobernantza eredu bat finkatzea**, lankidetzeta eta baterako sorkuntza **politika publikoak garatzen diren esparru guztietara eraman ahal izateko**; hau da, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritza politikoaren eta lantalde teknikoen arteko lankidetzeta gizarte antolatuarekin eta gainerako sistema instituzionalarekin. Apustu horrek modu aktiboan entzutera, dimentsio etikoa indartzera eta herritarren ahalduntze demokratikoko prozesu etengabe batera bideratzen du.

Lehentasun horiei erantzuteko jasotzen den helburu estrategikoetako bat zuzenean dago lotuta partaidetzarekin, **herritarrek parte hartzeko kultura lantzen jarraitzeko beharrarekin**, eta, horretarako, herritarrekin harreman zuzena bultzatzea eta partaidetzaren kultura zabaltzea eta sendotzea aurreikusten du.

Zehazki, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-23 Plan Estrategikoan jasotako **17. helburu estrategikoak** nabarmentzen du garrantzitsua dela herritarrekin harreman irekia finkatzea, bai eta partaidetza eta komunikazio bide berriak zabaltzea ere, eta, ildo horretan, aurreikusten du herritarren partaidetza txertatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoak prestatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan.



Herritarren Partaidetzarako Programa

Helburu estrategiko horri erantzuteko, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak —aurrerantzean, Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak— Herritarren Partaidetzarako 2019-2023 Programa diseinatu zuen. Haren bidez, parte hartzearen kultura sendotu nahi da Gipuzkoako gizartean, **4 ildo estrategiko, 12 esparru, 49 ekintza eta 3 euskarri tresna** hedatzearen bidez.

Herritarren Partaidetzarako Programa gida gisa baliatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak, eta han zehazten da nola hedatu behar diren gipuzkoarrekin harreman irekia sendotzeko eta partaidetza zein komunikazio bide berriak irekitzeko beharrezko estrategiak eta ekintzak. Hori horrela, programa tresna aproposa da herritarrek beren politika publikoak egiteko eta ebaluatzeko prozesuan parte har dezaten.

Herritarren partaidetza kudeaketa publikoan txertatzea lagungarria da:

- **Konfiantza sortzeko**, gobernuak indartzen dituen heinean.
- Politika publikoak **legitimatzeko**.



Herritarren Partaidetzarako Programa

- **Gizarte aniztasuna** integratzeko.
- **Gizarte interesak agenda publikoan sartzen** laguntzeko.
- **Herritarrak inplikatzeko** bizitza publikoa antolatzeko prozesuetan eta **gizarte zibilaren funtzioa indartzeko**.

Jarraian jasotzen den **taulan**, 4 ildo estrategikoen xehetasunak, horietako bakoitza osatzen duten 12 esparruak eta GFaren Partaidetza Programa gauzatzeko planteatutako 49 ekintzak biltzen dira.



1. ildo estrategikoa: HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK	1. esparrua. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	1. ekintza. Partaidetza tresnak sistematizatu 2. ekintza. Partaidetzako hausnarketa prozesuak 3. ekintza. Herri kontsultak 4. ekintza. Arau aurreproiektuak sortu 5. ekintza. Herritar panelak 6. ekintza. Herri epaimahaiak 7. ekintza. Bestelako partaidetza prozesuak
	2. esparrua. PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK	8. ekintza. Aurrekontu Irekiak
	3. esparrua. DIRULAGUNTZAK	9. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak 10. ekintza. Herritarren erakundeentzako dirulaguntzak
	4. esparrua. AHOLKULARITZA	11. ekintza. Barne erakunde aholkularitza 12. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza 13. ekintza. Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza
	5. esparrua. EBALUAZIOA	14. ekintza. Ebaluazioa
2. ildo estrategikoa: EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA	6. esparrua. PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA	15. ekintza. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola 16. ekintza. Erakundearen barne prestakuntza 17. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza 18. ekintza. Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu 19. ekintza. Partaidetza akreditazioa 20. ekintza. Udako ikastaro parte-hartzaileak 21. ekintza. Txostenak eta sistematizazioa 22. ekintza. Gidak 23. ekintza. Newsletterra 24. ekintza. Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa 25. ekintza. Artikulu akademikoak 26. ekintza. Ekitaldiak 27. ekintza. OGP Euskadin parte hartu 28. ekintza. Sare akademiko eta profesionalak 29. ekintza. Herritarren erakundeen erregistroa 30. ekintza. 5/2018 Foru Arauaren II. tituluan jasotako eskubideen berri eman
	7. esparrua. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA	31. ekintza. Sariak udalei eta erakundeei 32. ekintza. Sariak bestelako eragileei 33. ekintza. Plataforma kolaboratiboa 34. ekintza. Adimen Kolektiboko Software Sozial Laborategia 35. ekintza. Sare sozialak
	8. esparrua. AITORPENA	36. ekintza. "Blockchain" proiektu pilotua 37. ekintza. Entzute aktiborako gailuen prototipoak egin 38. ekintza. Herritarren partaidetzako buru moldeen tresnak 39. ekintza. Partaidetza kolektiboko innogida
	9. esparrua. BERRIKUNTZA	40. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua 41. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea 42. ekintza. Haurren eta nerabeen partaidetzarako Gipuzkoako laborategia 43. ekintza. Haurren eta Nerabeen Partaidetzarako Gipuzkoako Organoa 44. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa
	10. esparrua. ORGANOAK	45. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Alorreko Espazioetarako gobernantza eredu bateratua zehaztu 46. ekintza. Elkarteen Foroa 47. ekintza. GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoak
4. ildo estrategikoa: ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK	11. esparrua. PARTAIDETZA ESPARRUAK	48. ekintza. Araudien garapena 49. ekintza. Kode etiko bat garatu
	12. esparrua. ARAUDIEN GARAPENA	



2023. urterako planteatzen diren **helburuak**.

Herritarren Partaidetzarako Programaren **helburu estrategikoa** da herritarrekin harreman irekia sendotzea eta partaidetza eta komunikazio bide berriak irekitzea, eta, horretarako, herritarren partaidetza txertatzea Gipuzkoako Foru Aldundiaren politika publikoen prestaketan eta ebaluazioan.

Helburu estrategiko hori ildo estrategiko gisa proposatzen diren **helburu operatiboen** bidez hedatuko da:

- **Elkarlanean oinarrituriko gobernantza irekiaren** eredua garatzea eta bultzatzea.
- **Jakintza sortzeko jarduerak** diseinatzea eta gauzatzea.
- **Partaidetza bideak zabaltzeko**, tresna eta ekipamendu digitalak sortzea.
- Herritarren partaidetza bermatzeko eta sustatzeko beharrezko **organoak, egiturak eta araudiak ezartzea eta bultzatzea**.



2023ko ekitaldian landutako ekintzen laburpena

Taula honetan, 2023an partaidetzaren inguruan egin diren eta 2019-2023 Partaidetza Programan jasota dauden ekintzak jasotzen dira.

Aurten ere, programa garatzeko lau ildo estrategikoetan oinarrituta jarraitu da lanean. Alde horretatik, **hiru ildo hauek garatu eta lehenetsi dira: herritarren partaidetzarako estrategiak eta mekanismoak; ezagutzaren kudeaketa eta dibulgazioa; eta organoak, egiturak eta araudiak**. Berrikuntza digitalaren ildo plataforma kolaboratiboarekin lotutako ekintzan soilik oinarritu da.




2023ko ekitaldian landutako ekintzen laburpena (programan jasotako 49 ekintzetatik 33)

1. ildo estrategikoa: HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK	1. esparrua. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	1. ekintza. Partaidetza tresnak sistematizatu 2. ekintza. Partaidetzako hausnarketa prozesuak 7. ekintza. Bestelako partaidetza prozesuak		
	2. esparrua. PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK	8. ekintza. Aurrekontu Irekiak		
	3. esparrua. DIRULAGUNTZAK	9. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak 10. ekintza. Herritarren erakundeentzako dirulaguntzak		
	4. esparrua. AHOHKULARITZA	11. ekintza. Barne erakunde aholkularitza 12. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza 13. ekintza. Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza		
	5. esparrua. EBALUAZIOA	14. ekintza. Ebaluazioa		
2. ildo estrategikoa: EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA	6. esparrua. PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA	15. ekintza. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola 16. ekintza. Erakundearen barne prestakuntza 17. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza 18. ekintza. Partaidetzako profesionalaren profila eta gaitasunak zehaztu 19. ekintza. Partaidetza akreditazioa 20. ekintza. Udako ikastaro parte-hartzaileak		
		7. esparrua. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA	21. ekintza. Txostenak eta sistematizazioa 22. ekintza. Gidak 23. ekintza. Newsletterra 24. ekintza. Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa 26. ekintza. Ekitaldiak 27. ekintza. OGP Euskadin parte hartu 28. ekintza. Sare akademiko eta profesionalak 29. ekintza. Herritarren erakundeen erregistroa	
			8. esparrua. AITORPENA	32. ekintza. Sariak bestelako eragilei
			Ámbito 9. INNOVACIÓN	33. ekintza. Plataforma kolaboratiboa
		3. ildo estrategikoa: BERRIKUNTZA DIGITALA		
	4. ildo estrategikoa: ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK	10. esparrua. ORGANOAK	40. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua 41. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea 44. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa	
		11. esparrua. PARTAIDETZA ESPARRUAK	45. ekintza. Herritarren Partaidetzarako Alorreko Espazioetarako gobernantza eredu bateratua zehaztu 46. ekintza. Elkarteen Foroa 47. ekintza. GFAko departamentuekin lan egiteko lantalde teknikoa	
		12. esparrua. ARAUDIEN GARAPENA	49. ekintza. Kode etiko bat garatu	

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA

2023



1. ildo estrategikoa:
**HERRITARREN PARTAIDETZARAKO
ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK**



1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

1. ildo estrategikoaren (**Herritarren partaidetzarako estrategiak eta mekanismoak**) helburua da erakundearen gobernantza ireki eta kolaboratiboaren eredua garatzea eta bultzatzea.

2023an, ekintza gehiago landu ahal izan dira eremu horren barruan. Pandemia aurreko normaltasuna nagusitu ondotik, baieztatu dezakegu ekintza hori osorik berreskuratu dela.

Hausnartzeko eta erabakiak hartzeko tresnei dagokienez, 2023an abian jarritako ekintzak lantzen jarraitu da, eta, **partaidetza prozesu eta tresnen sistematizazioari** dagokionez, hainbat arrazoiengatik orain arte gauzatu ez diren tresnak hausnartzeari ekin zaio. Hori horrela, 2023. urtea garrantzitsua izan da **ekintza komunitarioan oinarritutako politika publikoak bultzatzeko esparrua definitzeari buruz hausnartzeko**. Esparru hori 2022an onetsi zen, udalekin eta lurraldeko beste erakunde batzuekin lankidetzan, Gipuzkoako politika publikoetan sartzeko prozesua sistematizatzen joateko.





1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Aldundiaren barruan, departamentu eta/edo zuzendaritza hauekin ere jardun da **lankidetzan**, besteak beste:

- **Estrategia Zuzendaritzarekin**, partaidetzarekin eta ekintza komunitarioarekin zerikusia duten **Etorkizuna Eraikizen herritarren proiektuei** dagokienez.
- **Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuarekin**, zeinarekin azterketa bat egin baita **Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gizarte Inklusioko eta Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen sareko erabiltzaile, profesional eta erakundeen partaidetzari buruz**.
- **Departamentu Arteko Batzordearekin (DAB)**, zeinaren bidez legegintzaldiko ebaluazio prozesu bat egin baita, Batzordeak berak duen eta izan beharko lukeen rolari buruz.
- **Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuarekin**, Beasain-Zumarragako (Goierri) eta Zarautz-Azpeitiko (Urola Kosta) Lurralde Plan Partzialak berrikusteari dagokionez.





1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Parte hartzeko programan jasotzen ez diren **beste partaidetza prozesu batzuei** dagokienez, ekintza hauek gauzatu dira:

- Partaidetzan oinarrituriko deliberazio prozesua zozketa bidez, Etorkizuna Eraikiz ekimenaren esparruan: **Gipuzkoako Herritarren Batzarra: landa mundua eta klima**; bertan, orpoz orpo lan egiten dute elkarrekin GFAko hiru zuzendaritzak. 2023an, lau deliberazio saio horietatik azkena egin da, eta Herritarren Batzarrak nekazaritzari eta klima aldaketari buruzko bederatzi gomendio aurkeztu zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari. Era berean, Aldundiak bi itzulketa saio egin ditu (Batzarraren proposamenak jaso eta 2 eta 6 hilabetera, hurrenez hurren), jasotako proposamen bakoitzaren inguruan hartutako konpromiso zehatzen garapen mailaren berri emateko Batzarrari. Prozesuaren Jarraipen Batzordeak ere egin ditu bilerak. Batzorde hori Batzar Nagusietan ordezkaritza duten alderdi guztiek eta nekazaritza eta ingurumen sektoreko eragileek osatzen dute.



Gipuzkoako
Herritarren Batzarra.
**Landa-eremua
eta Klima.**






1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

- **Tolosako herri batzarra**, gaixotasun mentalari buruz. Ekimen hori Tolosako Udalak abiarazia da, eta ELGAREN jarraibideen arabera garatu dute, Foru Aldundiaren parte hartzearekin. 2023a itzulketa urtea izan da: Tolosako Udalak idatziz hartu ditu Batzarraren gomendioei buruzko konpromisoak, eta 2 eta 6 hilabeteren buruan jarraipena egin da, betetzen ote diren ikusteko.
- **Tolosako “Non bizi naiz” gazte-prozesua**: Tolosako Udalak eta gure Zuzendaritzak gidatutako proiektu honen helburua da partaidetzan oinarrituriko prestakuntza lantzea Batxilergoko 1. mailako ikasleekin eta toki erakundeekin, eta, hala, erakundeen funtzionamendua eta eskumenak gazteei hurbiltzea. Horretarako, sekuentzia didaktiko bat sortu da Tolosako hiru ikastetxetan garatutako esperientzia pilotutik abiatuta (Laskorain Ikastola, Orixe Institutua, Herrikide Ikastetxea), eta, ondorioz, gazteek proiektu zehatzak aurkeztu dizkiete erakunde horiei aurrez aurreko saio batean. Hala, etorkizunean gerta daitezkeen partaidetza prozesuetan esku hartzeko prestatu dira. Ildo horretan, nabarmendu behar da Tolosako esperientziatik sortzen den “sekuentzia didaktikoa” osatu egin dela, helburu gisa harturik Gipuzkoako beste edozein udalerritan (eta agian Euskal Autonomia Erkidego osoan) eta Batxilergoko edozein ikastetxetan garatu ahal izatea.
- **II. Aniztasuneko Foru Planaren esparruan**, lan transbertsaleko mahai tekniko batean parte hartu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzendaritzetako beste aditu eta teknikari batzuekin batera, helburu gisa harturik **harrera-ibilbide integral komunitario bat diseinatzeko tresna bat garatzea**.





1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

2. esparruari dagokionez (**Partaidetzazko aurrekontuak**, 2022/2023), zenbait alderdi landu dira: Aurrekontu Irekiak eta Ideiak:

➤ **AURREKONTU IREKIAK 2022/2023:**

- 2021eko eta 2022ko ekitaldietan identifikatutako **hobekuntza alderdiak ezarri dira Aurrekontu Irekiak** egikaritzeko, eta, ildo horretan, lantalde tekniko bat sortu da, herritarren partaidetzarako plataformaren barne kudeaketa hobetu da eta GFaren inplikazioa sustatu da, erakunde osoaren ekimena izan dadin (eta ez Partaidetzako Zuzendaritzarena bakarrik).
- **Proposamenen aurkezpen fasean**, Zuzendaritzak **aurrez aurreko 4 informazio saio** egin ditu, eta dagokion toki administrazioko ordezkari bat izan dute: **Zarautz, Eibar, Tolosa, Irun eta Donostia**. Era berean, **proiektuak bozkatzeko fasean**, partaidetza eta informazio kapsula instalatu da **20 egunez, 19 kokalekutan**, prozesua kalean ere zabaltzeko eta, hala, parte hartzea errazteko —finean, proiektuak bozkatzeko—.






1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

Aurrekontu Irekiak 2022. eta 2023. urteetan egikaritu dira. Hauek izan dira [Aurrekontu Irekiak 2022/2023](#) ekimenak lorturiko emaitzak:

- **1. fasea. Proposamenak biltzea: 1.541** lagunek aurkeztu zituzten proposamenak.
Herritar gehienek (% 87,7) aurrez aurre parte hartzeko bidea aukeratu zuten.
- **2. fasea. Proposamenen bideragarritasuna aztertzea eta herritarrek bozkatzera bideratutako proiektuak hautatzea:**
Partaidetza prozesuaren lehen fasean jasotako proposamenak sailkatu, multzokatu eta aztertu ondotik, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikari taldeak —hamar gai arloetako kidez osatua— definitu zituen azkenean proiektuen bigarren bozketa fasera igaroko ziren proiektuak. Hala, **36 proiektuz osaturiko zerrenda bat** egin zuen. Proiektu horietan, **7.374 lagunek parte hartu zuten**: % 88,84k aurrez aurre, eta % 11,16k, berriz, online.





- **3. fasea. Herritarrek proiektuak bozkatzea**

Herritarrek 36 proiektuak bozkatzeko prozesutik lortutako emaitzak aztertu ondoren, eta ikusirik gehien bozkatutako lehen 10 proiektuak gauzatzeak ez zuela lortzen Aurrekontu Irekiak 2022/23 ekimenerako protokoloaren oinarrietan aurreikusitako zenbateko osoa (2.000.000 €), erabaki zen beste proiektu batzuk ere sartzea, lortutako puntuazio ordenaren arabera. Horren ondorioz, **13 proiektu finantzatu dira**: herritarrek gehien balioetsitako 12 proiektuak osorik finantzatu dira, eta gainerako zenbatekoa (2.000.000 €-ra iritsi arte, hau da, 125.000 €) puntu gehien lortu dituen hurrengo proiektua egiteko erabili da.



• 4. fasea. Finantzatutako proiektuak gauzatzea

1		Gipuzkoako ibai arroak, hondartzak eta itsasertzak garbitzea Limpieza de cuencas de ríos, playa y litoral guipuzcoanos	200.000€	7		Foru bidegorrietan hiri-altzariak, pixatokiak eta iturriak jartzeko dirulaguntzak Subvenciones para instalar mobiliario urbano, urinarios y fuentes en los bidegorris forales	200.000€
2		Mendi publikoak garbitzea eta mantentzea Limpieza y mantenimiento de los montes	200.000€	8		Nahasmendu mentala duten adingabeei arreta emateko eguneko zentroa Centro de día para atención a menores con trastorno mental	75.000€
3		Basoak bertako espezieekin basoberritzea Reforestación de los montes con especies autóctonas	200.000€	9		Kontsumo hasiberrien, eskola porrotaren eta portaera arazoen prebentzio programa Programa preventivo de los consumos incipientes, fracaso escolar y problemas del comportamiento	50.000€
4		Etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxe plazak irekitzea Apertura de plazas de albergues para personas sin hogar	200.000€	10		Herritarrentzako sarbide libreko kirol instalazioen eraikuntza bultzatzea Impulsar la construcción de instalaciones deportivas de acceso libre a la población	200.000€
5		Gazteek sustatutako enpresa proiektu berriak finantzatzea Financiación de nuevos proyectos empresariales promovidos por jóvenes	200.000€	11		Landa inguruneko bide homologatuak egokitzea Acondicionamiento de senderos homologados en el medio rural	100.000€
6		Lan aukerak gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden emakumeentzat Oportunidades laborales para mujeres en riesgo de exclusión social	50.000€	12		Elikadura jasangarria eta osasungarria sustatzeko ekimenak Iniciativas para impulsar una alimentación sostenible y saludable	200.000€
13					Gipuzkoako talentu gaztea sustatzea Promoción del Talento Joven del territorio de Gipuzkoa	200.000€ → 125.000€	

• 5. fasea. Emaitzak lortzea eta barne-ebaluazioko prozesua:

2023an, Aurrekontu Irekiak programaren barne-ebaluazioko prozesu bat egin da.



1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

➤ IDEIAK 2023:

- Bestalde, “**Ideiak 2023, mugaz gaindiko aurrekontua. Gipuzkoa - Pirinio Atlantikoak**” deialdia gauzatu da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren artean (64. departamendua da). Egitasmo horren helburua da herritarrak adoretzea, bi lurraldeen artean loturak sortuko dituen proiektuak egin daitezzen, plan anbiziotsu eta berritzaile bati esker.

Aurrekontua: mugaz haraindiko partaidetza aurrekontuak finantzatu du proiektuaren kostuaren % 100, gehienez ere 20.000 euroko mugarekin. Guztizko zenbatekoa: **300.000 euro** (150.000 euro Gipuzkoako Foru Aldundiak eta beste horrenbeste Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak).

Hauk izan dira herritarren zein elkarten **partaidetzaren emaitzak:**

- **Online bozkaturiko proposamen kopurua: 32**
- **Parte hartzaile kopurua: 4.370** boto, lehen edizioan baino 826 gehiago.
- **Diruz lagundutako proiektuen kopurua:** guztira **18** proiektutatik, lurralde bakoitzean boto gehien jaso dituzten 9 ekimenak aukeratu dira.





1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK



3. esparrua (Dirulaguntzak) bide egokia da finantzaketa eskaintzeko hala toki administrazioei nola erakunde txikiei eta herritarren erakundeek, partaidetza prozesuak gauzatu ditzaten edo partaidetza susta dezaten modu guztietan. Era berean, ekintza komunitarioa ere sustatu nahi da esparru horren bidez.

2019-2023 legegintzaldi honen hasieratik landu den bezala, 2023an ere indarrean jarraitzen dute **bi dirulaguntza ildok**, zeinak bereziki bideratuak baitira partaidetzarekin, ekintza komunitarioarekin, partaidetzan oinarrituriko kultura sustatzearekin eta partaidetza prestakuntzarekin lotutako jarduerak garatzeko **Gipuzkoako udaletan, erakunde txikietan eta herritarren erakundeetan**.

Nabarmentzekoa da 2023an **jaitsi egin dela udalen eta erakunde txikien eskaera kopurua, 2022. urtearekin alderatuta —kontuan izanik udal hauteskundeak ere izan direla—**. Hori horrela, guztira **41 eskaera** jaso dira 38 udaletatik, eta horietatik bi bakarrik geratu dira kanpoan puntuazio nahikoa ez lortzeagatik. Aurten ere eutsi egin zaio **2022ko aurrekontuari: 490.000 €**.

Elkarteen kasuan, nahiz eta aurreikusitako hasierako **aurrekontua** 2022koaren berdina izan (260.000 €), azkenean handitu egin da eta **295.692 €**-ko guztizko aurrekontu izan da, Udaletara bideratutako aurrekontua ez baita ehuneko ehunean estali. Beraz, soberakinak elkarteen proiektuetarako erabili dira, kreditu transferentzia baten bidez. Elkarteen kasuan, **55 eskaera** aurkeztu dira, eta horietatik 44 onartu dira.



1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK



Deialdiaren urtea	UDALAK		ELKARTEAK	
	GFAk baimendutako aurrekontua	Onartutako eskaerak	GFAk baimendutako aurrekontua	Onartutako eskaerak
2023	490.000 €	39	295.692 €	44

Dirulaguntzen esparruan, garrantzi handia dute planteaturiko **hobekuntza** hauek:

- **Aldaketak eta hobekuntzak sartu dira Udalen 2023ko dirulaguntzen oinarrietan**, eta, haietan, **ekintza komunitarioa bultzatzeko epigrafe berri bat txertatu da**. Era berean, udalen tamainaren arabera aurrekontutik bereizitako zenbateko bat gorde da, eta **areagotu egin da udal txikientzako zenbatekoa** (150.000 €). Eskaeren kalitatea gero eta handiagoa da.
- **Elkarteentzako dirulaguntzen kasuan**, 2023an **dirulaguntzen ebaluazioa eta jarraipena egiteko proiektu pilotu bat** gauzatu da: hiru saio antolatu dira 2022ko dirulaguntzetara aurkeztu ziren bost elkarteekin. **Prozesuari esker, elkarteek** —bai jarraipen proiektuko bost elkarteek, bai Elkarten Foroak, oro har— **2024rako dirulaguntzen oinarriak hobetzen parte hartu ahal izan dute**, eta, horretaz gainera, herritarren elkarteentzako dirulaguntza proiektuen jarraipenaren inguruko lan ildo bat zehaztu eta planifikatu ahal izan dute.



1. ildo estrategikoa:

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

4. **esparruaren** barruan (**Aholkularitza**), laguntza eskaintzen zaie erakundeei eta elkarteei partaidetza prozesuak kudeatzeko.

2023an, **udal hauei eskaini zaie aholkularitza:**

- **Donostia:** DONOSTIA LAGUNKOIA egitasmoaren gobernantza guneak dinamizatzeko laguntza teknikoa eta babesa.
- **Ataun:** Udalaren etxebizitza baten edukiak eta erabilerak birgaitzeko eta definitzeko prozesua.
- **Alegia:** bi hiri parke eraldatzeko prozesua.
- **Tolosa:** herritarren partaidetza sistematizatzeko prozesua, orain arte egindakoaren kontakizuna antolatuz eta lan prozesuak eta espedienteak definituz.

Era berean, **dirulaguntzen ebaluazio eta jarraipenerako proiektu pilotuan parte hartu duten bost elkarteek** proiektuen eta elkarten arteko hobekuntzak eta lankidetzak identifikatu dituzte.

Eta, azkenik, **Aldundiak barne erakunde aholkularitzak** ere jarraitzen du. Hala, nabarmentzekoak dira aurrekontu irekien talde teknikoa eta GFAko departamentu bakoitzarekin 2024-2026 hizkuntza kudeaketako planak onartzeko barne prozesuaren diseinua.



1. ildo estrategikoa:


HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

5. esparrua (Ebaluazioa) lehentasunezko ildoetako bat izan da legegintzaldiaren azken urtean, eta ekintza estrategiko hauek garatu dira:

- **Partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauaren kanpo ebaluazioa egiteko prozesua**
- **Aldundiaren 2019-2023 Partaidetzarako Programaren ebaluazio prozesua.**
- **Udalen eta elkarten dirulaguntzak ebaluatzea**, galdetegi eta elkarrizketa kualifikatuen bidez, eta, ebaluazio hori oinarri hartuta, udal dirulaguntzen oinarriak aldatzea.
- **Elkarten Foroaren ebaluazioa**, 2019-2023 legegintzaldiko ebaluazioaren barruan.
- **Erakunde arteko Espazioaren ebaluazioa**, 2019-2023 legegintzaldiko ebaluazioaren barruan.
- **Gizarte Kontseiluaren ebaluazioa**, 2019-2023 legegintzaldiko ebaluazioaren barruan.

2023AN EGINDAKO EKINTZARIK NABARMENENAK

**1. ildo estrategikoa
 HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK.**





1. ildo estrategikoa

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK

2023ko ekitaldian landutako ekintzen laburpena

1. ildo estrategikoa HERRITARREN PARTAIDETZARAKO ESTRATEGIAK ETA MEKANISMOAK	1. esparrua. HAUSNARKETA ETA ERABAKIA HARTZEA	1. ekintza. Partaidetzako tresnak sistematizatu 2. ekintza. Partaidetzako hausnarketa prozesuak 7. ekintza. Bestelako partaidetza prozesuak
	2. esparrua. PARTAIDETZAZKO AURREKONTUAK	8. ekintza. Aurrekontu Irekiak
	3. esparrua. DIRULAGUNTZAK	9. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako dirulaguntzak 10. ekintza. Herritarren erakundeentzako dirulaguntzak
	4. esparrua. AHOLKULARITZA	11. ekintza. Barne erakunde aholkularitza 12. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako aholkularitza 13. ekintza. Herritar erakundeentzako eta herritarrentzako aholkularitza
	5. esparrua. EBALUAZIOA	14. ekintza. Ebaluazioa

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA

2023



2. ildo estrategikoa
**EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA
DIBULGAZIOA**





2. ildo estrategikoa EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

2. ildo estrategikoaren (**Ezagutzaren kudeaketa eta dibulgazioa**) helburua da jakintza sortzeko jarduerak diseinatzea eta gauzatzea.

Prestakuntza eta trebakuntza biltzen dituen **6. esparruaren** barruan, ekintza birtualak eta presentzialak landu dira.

2023an, **Gipuzkoako Eskola Irekia (GEI) sendotu da. Zer egiten du GEIk eta zertarako?**

- **Kontzeptualizatu:** Herritarren partaidetza eta garapen komunitarioa ulertzeko modua eta eman nahi zaion zentzua jaso.
- **Elkarrizketa publikoa ahalbidetu:** Herritarren elkarrizketa publikoa sustatzea, demokraziaren dimentsio deliberatiboan sakonduz.
- **Trebakuntza eskaini:** Parte hartzeko gaitasunak garatu eta ezagutzan sakontzeko trebakuntza eskaini.
- **Esperimentatu:** Egiten ikasteko espazioa. Elkarlanerako trebetasunak, negoziazioa eta eztabaidarako zein akordiorako beharrezkoak diren jarrerak ikasteko metodoak esperimentatzea.
- **Sistematizatu:** Esperientzien, datuen eta ezagutzaren banku bat izango da, eta inspiratzaileak edota erreplikagarriak diren praktika eta prozesuak sistematizatuko ditu.
- **Saretu:** Askotariko eragileen arteko aliantzak sortzen saiatuko da, ezberdinen arteko konplizitatea ehuntzeko ahalegina eginez eta esperientzia zein eredu aniztasuna aintzat hartuz.





2. ildo estrategikoa EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

Nola? Gipuzkoako Eskola Irekia sendotzeko, garrantzitsuak izan dira **ikastaroak, jardunaldiak, uda ikastaroak, partaidetza saioak, topaketak, proiektu partekatuak eta partaidetzan oinarrituak, elkarrizketa publikoak, laborategiak, ikerketak, onlineko baliabideak edo gidak, guztiak ere mota guztietako publikoari zuzenduak, hala nola udaletako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko elkarte, politikari eta teknikariei eta, oro har, herritarrei.**

Hona hemen, laburpen gisa, **2023ko prestakuntza ekintzarik garrantzitsuenak:**

- **BIDELAGUNTZA** Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzarako Zerbitzuaren prestakuntza ekimen bat da, eta, **udaletako ordezkari politikoak eta teknikariak prestatzearen bidez**, herritarren bizi kalitatea eta aukerak hobetzea du helburu. Hala, lurralde osoan zabaldu nahi du partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren gaineko ezagutza. Bizia eta malgua izan nahi du, ondo egokitua toki bakoitzaren errealitatera eta eskarira.





2. ildo estrategikoa EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

Bidelaguntza programaren barruan, ekintza hauek egin dira 2023an:

- **Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa** Gipuzkoako udaletarako. Urriaren 19an, udalerrri ertain eta handiei zuzenduta (+2.500 biztanle) eta 21ean, berriz, udalerrri txikiei. Guztira, 250 politikarik, teknikarik eta herritarrek parte hartu dute (antolatuak zein ez-antolatuak).
- **Udalan edo udalerako lan egiten duten pertsonei eta ordezkari politikoei zuzendutako udal prestakuntza tailerrak**. Zehazki, hauek dira lurraldeko aholkularitza enpresa eta etxe nabarmenekin (Atiker, EMUN, Elhuyar, Parte Hartuz-EHU eta Prometea) lankidetzan diseinatu ditugun 5 tailerrak:
 1. Nola sustatu herritarren parte hartzea udaletik?
 2. Udaletako partaidetza gune, espazio eta prozesuen kalitatean sakontzen
 3. Ekintza komunitarioaren estrategiatan sakontzen
 4. Nola txertatu ikuspegi komunitarioa gure zerbitzu eta ekipamendutan?
 5. Nola indartu partaidetza eta ekintza komunitarioa 2500 biztanleko herrietan?

Udalak egingo du trebakuntza-tailerrean parte hartuko dutenen aukeraketa. Udal bakoitzak tailer mota bakarra eskatzeko aukera izango du. Guztira 20 tailer egin dira, eta 24 udalek hartu dute parte. Batez besteko gogobetetze mailari dagokionez, 8,3koa izan da.





2. ildo estrategikoa

EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Foru Aldundiaren barruan partaidetza kultura gaitzeari eta bultzatzeari dagokionez, ekimen hauek nabarmentzen dira:**
 - **Gipuzkoako Herritarren Partaidetzari eta Ekintza Komunitarioari buruzko barne jardunaldi bat, Aldundiko departamentuei zuzendua**, erakundean bertan partaidetza eta ekintza komunitarioa elementu transbertsal bihurtu dadin. (2023ko urriaren 20a)
 - Eta, saio horren ondoren, **tailer bat antolatu dugu 10 departamentuetako bakoitzarekin, aurreikusita dauzkaten partaidetza proiektu posibleen diagnostikoa egiteko eta, hartara, 2024-2027 Partaidetza Programa berrian txertatzeko**. Era berean, tailer horiek baliatu dira egoeraren diagnostikoa egiteko eta departamentu bakoitzak Gipuzkoako Foru Aldundiaren barruan zein kanpoan dituen harremanen mapaketa egiteko, lankidetzako gobernantza errazte aldera.





2. ildo estrategikoa

EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Topagunea 2023 UIK Uda Ikastaroekin dugun lankidetzaren hitzarmenaren esparruan:**
- Partaidetza sustatu da herritarrei oro har zuzendutako **4 uda ikastaro** hauetan:
 1. Esperientziaren ahotsak: parte-hartzea, autodeterminazioa eta ahalduntzea gizarteratzeko bidean. (Uztailak 17)
 2. Inklusiorako trantsizioa: parte-hartzea, autodeterminazioa eta ahalduntzea sustatzeko eredu eta ikuspegiak. (Uztailak 18)
 3. Sexualitateak emakumeen ikuspuntutik. (Irailak 6-7)
 4. Ekintza komunitarioa bazterretatik eta absenzietatik. (Irailak 11-12)
- **Herritarren partaidetzari buruzko solasaldi ziklo bat antolatu dugu, “Partaidetza aztergai: nahi, ahal, jakin”** izenburuarekin, eta hiru saiotan garatu da 2023ko urtarriletik martxora: lehena Azpeitian (San Agustin Kulturgunean) eta hurrengo biak Donostian (Miramar Jauregian eta Okendo Kultur Etxean). Nabarmentzekoa da, era berean, **Elkarteen Foroko kide diren elkarteek bultzatutako PREST ekimena**, zeinak elkarten eta udalen arteko lankidetzaren sustatzen baitu. Hala, galdera hau egiten du: zer-nolakoa litzateke lankidetzaren elkarterik ez balitz?





2. ildo estrategikoa

EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

- Zuzendaritzak antolatutako **prestakuntza jardueren artean**, nabarmentzekoa da **Errazte eta Lidergoa ikastaro trinkoa (8 modulu ELDER)**, **udaletako eta Aldundiko teknikariei zuzendua**. Ikastaro hori 2022-2023 aldian eskaini da, helburu gisa harturik talde lana, partaidetza errealia, talde prozesuen kudeaketa efizientea eta balizko gatazken elkarlaneko konponbidea babesten dituen lidergo kontziente baterako tresnak eta trebetasunak ematea.



Prestakuntza eskaintza propio horren osagarri, **beste erakunde batzuen ekimenei ere eskaini diegu laguntza —finantzarioa edo teknikoa—**. Adibidez:

- **Partaidetzari, ikerketari eta garapen komunitarioari buruzko nazioarteko jardunaldiak** (Parte Hartuz. Bilbo, apirilaren 26tik 28ra)
- UIKek eta Errenteriako Udalak antolatutako ikastaroa, **udaletako** langileei bereziki zuzendua: [Udalok norekin eta nola partekatu behar dugu boterea? Ausazko metodologiak aztergai](#). (Irailak 12)
- Genero ikuspegia aurrekontu publikoetan txertatzeari buruzko **jardunaldia**: esparru teorikoa eta praktikak (abendua)

2023an egin da, orobat, **Partaidetza aztergai: nahi, ahal, jakin** hausnarketa zikloaren barneko hiru saioetako azkena.

Programaren ildo estrategiko horri buruzko informazioa eta materiala eskuragarri dago **Herritarren Partaidetzako webgunean**, GEIari dagokion atalean.

Partehartzean
hezitzeko
eta
motibatze
BALIABIDEAK
eskaini dira



2. ildo estrategikoa

EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

7. esparruak (Ezagutza, hedapena eta transferentzia) herritarrek lurraldean egiten diren partaidetza ekintzen berri izateko beharrezko tresnak artikulatzen ditu.

Alde batetik, partaidetzako **webgunearen** kanpo komunikazioan, irisgarritasunean eta garapenean egindako aurrerapenak nabarmentzen dira.

Bestalde, Partaidetza Programan jasotako ia ekintza guztiak lantzen jarraitzen da, eta, horien artetik, hauek nabarmentzen dira:

- **Prozesuak sistematizatzeko liburuxkaren/fitxaren diseinua eguneratu da, bai eta lan prozedura aldatu ere.**
- Gipuzkoako Foru Aldundirako eta Toki Administrazioetarako 2022an onetsitako **Ekintza Komunitarioko Esparrua zabaldu da, eta balioa eman zaio.**






2. ildo estrategikoa

EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

- Hiru **Newsletter** argitaratu dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzako webgunean eta Erakunde arteko Espazioaren PARTEKATU plataforman. Haiei esker, Aldundiak, udalek eta elkarteek partaidetzaren arloan gauzatzen dituzten ekintzak ezagutarazi dira eta, era berean, gipuzkoarrentzat interesgarriak izan daitezkeen ekintzen berri eman da. Horretaz gainera, Euskadin, Espainiako estatuan eta nazioartean gauzatzen ari diren partaidetza esperientziak jakinarazi dira eta Aldundiaren Herritarren Partaidetzako web orriaren sareko posizionamendua hobetu da.
- 2022ko deialdian diruz lagundutako **udalen eta elkarten proiektu** berriak sartu dira **Gipuzkoako partaidetza-esperientzien mapan (geolokalizazio mapa)**.





2. ildo estrategikoa

EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

- **OGP Euskadiren** esparruan, eta 3. konpromisoaren barruan, urte garrantzitsua izan da aurtengoa; izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundia, Innobasquerekin batera, **ARRAKALA DIGITALARI eta ETIKA PUBLIKOARI** buruzko hausnarketa prozesu baten buru izan da, zeinean 15 erakunde publikok eta pribatuk eta herritarren ordezkariak parte hartu baitute. Horren ondorioz, bi gida pedagogiko egin dira, elkarlanean sortzeko bi prozesuren bidez:
 - **Arrakalarik gabeko ekimen digitalak sortzeko GIDA. Eten digitalari buruzko bi esperientzia pilotu egin dira**, helburu gisa harturik digitalizazio ekimenak abiarazi behar dituzten entitateei zuzenduriko gida probatzea, herritarren premiak balioetsi ahal izateko, eskaintzen dituzten zerbitzuak diseinatzerakoan. Pilotu horiek baliagarriak izan dira **2024ko otsailean argitaratutako gida baliozkotzeko eta hobetzeko**.
 - **Kultura etikoaren gida erakundeetan. Erakundeetan kultura etikoa sustatzeko bigarren gida bat egin da**. Hala, etikari buruzko kontzeptu erabakigarriak jasotzen dira, eta instituzioetan partaidetza prozesu bat bultzatzeko **ibilbide orri** bat proposatzen da, gatazka etikoak prebenitzeko eta kudeatzeko balio etikoak adosteko eztabaida metodologiaren bidez. Gida hori 2024ko otsailean argitaratu da.





2. ildo estrategikoa


EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

- **Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroa eguneratzea**, herritarren partaidetzarekin zerikusia duten kontu guztien gaineko informazioa helarazteko bide telematikoz. 2023an, hainbat konturi buruzko informazio bidali dugu: Gipuzkoako Foru Aldundiaren partaidetzako dirulaguntzen 2023ko deialdia, 2023ko Elkarlan Sarien deialdia, I-LAB deialdia (partaidetzan oinarritutako berrikuntza proiektu esperimentaletarako dirulaguntzak), IDEIAK 2023 (mugaz gaindiko partaidetzazko aurrekontua), eta “Ekintza komunitarioa bazterretatik eta absentzietatik” uda ikastaroa. Bestalde, aurten **beste hiru elkartek** eman dute izena Partaidetzarako Herritar Erakundeen Foru Erregistroan.
- **Elkarteek egindako lana aitortzea**, eta, horretarako, Elkarten Foroaren esparruan sortutako **PREST dokumentua** onestea eta hura **modu antzeztuan aurkeztea** udaletako ordezkari, partaidetzari eta ekintza komunitarioari buruzko jardunaldi batzuetan.
- Lankidetzan jarraitzen dugu **sare akademiko eta profesionalekin**, hala nola [OGP Euskadi](#), [OIDP](#), Novagob, [The Participatory Group](#) eta [Red\(e\) Delib](#).





2023AN EGINDAKO EKINTZARIK NABARMENENAK



2. ildo estrategikoa
EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA




2. ildo estrategikoa EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA

2023ko ekitaldian landutako ekintzen laburpena

2. ildo estrategikoa EZAGUTZAREN KUDEAKETA ETA DIBULGAZIOA	6. esparrua. PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA	15. ekintza. Herritartasun Irekiaren Gipuzkoako Eskola 16. ekintza. Erakundearen barne prestakuntza 17. ekintza. Udalentzako eta erakunde txikientzako prestakuntza 20. ekintza. Udako ikastaro parte-hartzaileak
	7. esparrua. EZAGUTZA, HEDAPENA ETA TRANSFERENTZIA	21. ekintza. Txostenak eta sistematizazioa 22. ekintza. Gidak 23. ekintza. Newsletterra 24. ekintza. Gipuzkoako partaidetza esperientzien mapa 26. ekintza. Ekitaldiak 27. ekintza. OGP Euskadin parte hartu 28. ekintza. Sare akademiko eta profesionalak 29. ekintza. Herritarren erakundeen erregistroa

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA

2023



3. ildo estrategikoa
BERRIKUNTZA DIGITALA






3. ildo estrategikoa BERRIKUNTZA DIGITALA

3. ildo estrategikoak (**Berrikuntza digitala**) tresna eta ekipamendu digitalak artikulatzen eta sortzen ditu, parte hartzeko bideak zabaltzeko.

2023an, 2020an abiarazitako **herritarren partaidetzarako plataforma hobetzen** jarraitu da. **Hobekuntzak egin dira Aurrekontu Irekiak eta Ideiak 2023 egitasmoen kudeaketan**, eta **funtzionaltasun berri bat sortu da herritarren ekimenak kudeatzeko**.

Azpiegitura digital fidagarria da, bai esparru teknikotik, bai funtzionaletik, eta irekia da edozein komunitaterentzat, inklusiboa eta eskalagarria normahirentzat, herritarrek parte hartzeko tresnak garatu ahal izan ditzaten.





2023AN EGINDAKO EKINTZARIK NABARMENENAK

Plataforma
kolaboratiboa

9. esparrua.
BERRIKUNTZA



3. ildo estrategikoa
BERRIKUNTZA DIGITALA



3. ildo estrategikoa **BERRIKUNTZA DIGITALA**

2023ko ekitaldian landutako ekintzen laburpena


3. ildo estrategikoa
BERRIKUNTZA DIGITALA

9. eremua. **BERRIKUNTZA**

33. ekintza. **Plataforma kolaboratiboa**

HERRITARREN PARTAIDETZARAKO PROGRAMA

2023



4. ildo estrategikoa
ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



4. ildo estrategikoa ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA

4. ildo estrategikokoak herritarren partaidetza bermatzeko eta sustatzeko beharrezkoak diren **organoak, egiturak eta araudiak** ezartzen eta bultzatzen ditu.

10. eta 11. esparruen barruan, **herritarren partaidetzarako organo eta egiturekin** lotuta, 2023a finkapen urtea izan da:

- **Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua**
- **Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea**
- **Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa**
- **Elkarteen Foroa**

Hona hemen organo eta egitura horietako bakoitzak aurten izan dituen mugari eta ekintza garrantzitsuenak:



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA

Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua:

- Herritarrek parte hartzeko eta azaroaren 12ko 5/2018 Foru Arauan aurreikusitako tresnak garatzeko eta aplikatzeko **organo aholku-emailea** da.
- 2023an **3 osoko bilkura eta 5 bilera** egin dituzte sortu diren bi lantaldeetan.
- Hauek izan dira organo horrek 2023an izaniko **funtzio** nagusiak:
 - Gipuzkoako Foru Aldundiari **aholku ematea** herritarren partaidetzaren arloko helburuak eta jarduerak definitzeko.
 - **2019-2023 Partaidetza Programaren** aplikazioa jakinaraztea, ikuskatu eta baliozkotzea, eta haren ebaluazioa egitea.
 - **2024-2027 Partaidetza Programaren aurreproiektua hobetzeko proposamenak eta gomendioak** egitea.

Legegintzaldi honen amaieran, Partaidetzari buruzko Foru Arauan ezarritakoaren arabera, Zuzendaritzak Kontseiluaren konfigurazio berria landu du 2023-2027 aldirako.





4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA

Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua:

- Gizarte Kontseiluaren oinarrizko funtzioez gainera, 2023an aurreko urtean planifikatutako ekintzak taxutu eta gauzatu dira, eta **bi lantalde jarri dira abian**:
 - ✓ **“Partaidetza aztergai: nahi, ahal, jakin” topaketa irekien programa garatzeko lantaldea.** Gizarte Kontseiluak bultzatutako solasaldiak izan dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatu ditu, EHUko UIK Fundazioarekin lankidetzan. Helburua izan da herritarren partaidetzarekin lotutako gai interesgarrietan elkarrizketa publikoa sortzea Gipuzkoako pertsona eta gizarte erakundeekin: herritar antolatuak edo antolatu gabeak, politikariak eta teknikariak, enpresa espezializatuak eta unibertsitatearen munduko pertsonak. **Hiru topaketa** egin dira 2023ko urtarrilaren 26an, otsailaren 25ean eta martxoaren 24an, eta guztira 205 lagunek parte hartu dute.
 - ✓ **“Herritarren partaidetzarako tresnen kutxa” izeneko lantaldearen** eginkizuna izan da 5/2018 Foru Arauan jasotzen diren partaidetza tresnei buruzko kalitatezko ezagutza eta informazioa sortzea. Lantalde horrek **fitxa** bat diseinatu du “partaidetza tresnen kutxarako”, eta tresna bakoitzeko funtsezko informazioa bildu nahi du; **26 esperientzia** identifikatu eta aztertu ditu guztira; eta tresna bakoitzaren ezaugarri nagusiei buruzko **lehen txostena** idatzi du, tresna guztietarako baliagarriak diren gomendio orokorrekin batera.
- Gizarte Kontseiluaren 2023ko memoria [webgunean](#) dago eskuragarri.





4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea:

- Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak herritarren partaidetzaren arloan Aldundiak zertzen dituen jarduerak koordinatzea izango du xede eta, zehatzago, foru arau honetan arautzen diren partaidetza prozesuak garatzeko jarduerak koordinatzea, arlo honetan foru departamentuek garatzen duten jardueraren koherentzia eta osagarritasuna lortzearekin batera.
- Besteak beste, **eginkizun** hauek dagozkie:
 - Partaidetzan oinarrituriko deliberazio prozesuak egiteko ekimenak baiestea edo ezestea, arrazoituta, eta ager daitezkeen desadostasunak konpontzea, haiek ere arrazoituta.
 - Foru Aldundiak onetsiko duen Partaidetza Programaren proposamena egitea.
 - Genero berdintasuna txertatzen dela eta emakumeek eta gizonek partaidetza prozesuetan modu orekatuan parte hartzen dutela bermatzea, horretarako beharrezkoak diren neurriak bultzatuz, eta administrazioaren eta herritarren prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatzea generoaren eta herritarren partaidetzaren arloan.
- Legegintzaldi berria hastearekin batera, bilera bat egin zen azaroaren 21ean, eta, saio hartan, kide berriak aurkeztu ziren; helburuak eta funtzioak aurkeztu zitzaizkion Foru Batzordeari; Foru Arauaren ebaluazio txostena aurkeztu zen; eta 2024-2027 Partaidetza Programa egiteko egin beharreko hurrengo urratsen berri eman zen.



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



ERAKUNDE
arteko
ESPAZIOA

ELKARTEEN
FOROA

GIZARTE
KONTSEILUA

FORU
Batzordea

Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa:

- Gune estrategiko bat da, helburu duena herritarren partaidetza Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta toki erakundeen jarduketa zeharkako esparru gisa garatzea. Elkarrizketara eta herritarren partaidetzarako politikak sustatzera bereziki bideratutako erakunde gune gisa finkatu da, eta, aldi berean, esperientziak eta praktika onak trukatzeko eta arlo horretako gaiak elkarrekin ikasteko esparru gisa jarduten du.
- Haren lan esparruak **bost lan ildo estrategiko ditu**, eta bostek ere udalerrien behar komun eta zehatzei erantzuten diete:
 1. Gipuzkoako lurraldeko herritarren partaidetza esparrua definitzea (diskurtsoa, kontakizuna...).
 2. Administrazioaren lan dinamikak aztertzea, herritarren partaidetza sustatzeko eta baldintza egokiak sortzeko.
 3. Etengabeko prestakuntza eskaintzea, partaidetza kultura bultzatzen jarraitzeko.
 4. Izaera komunitarioa eta herritartasuna garatzea.
 5. Komunikazioa eta transmisioa lantzea, jakintza partekatua.



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa:

- 2019-2023 aldirako plangintza amaitu ondotik, eta 2023ko maiatzeko hauteskundeak tarteko, esan dezakegu urtea bi zatitan banatu dela **Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioan**:

- ✓ **Lehen seihilekoan**: ordura arte egindakoa modu partekatuan ebaluatu dugu, etorkizunerako norabidea marrazteko. Horretarako, prozesu espezifiko bat diseinatu eta garatu da.
- ✓ **Bigarren seihilekoan**: legegintzaldi berriak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatuz, prestakuntza programa bat diseinatu eta abiarazi da udal teknikari eta ordezkariarentzat, formatu, intentsitate eta konpromiso desberdinak eskatzen dituzten jarduerekin.



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa:

- 2019-2023 legegintzaldiak eman duena kontuan hartuta, azken lau urteetan eginiko urratsei esker, jauzi kualitatiboa lortu da Erakunde arteko Espazioaren jardunean. Teoria eta praktika konbinatuz lan egin du. Adibiderik nabarmenena izan da lurraldeko **ekintza komunitarioaren esparru kontzeptual, estrategiko eta operatiboa lantzea**, eta, horri esker, partaidetzari erreparatzeko bestelako modu bat eman dugu, bai egiteko moduei dagokienez, bai emaitzari dagokionez. Lan horri esker lortu dugu, adibidez, beste sare batzuetara sartzea, eta udalerriak eta haien ordezkariak erdigunean jartzea, haiexek baitira Espazioaren erabiltzaile eta eragile nagusiak.
- Erakunde arteko Espazioaren azken urteotako jarduerak erakusten duenez, **hain aldakorra den inguruabar sozialak horrelako egituretan prozesu ikuspegi malguz jardutea eskatzen du**, eta, ildo horretan, egungo errealitatearen premiei eta aukerei erantzuteko modurik eraginkorrenak bilatzea. Eta, jakina, argi eta garbi zehaztu behar dira oinarriak eta lan zuzendaritza. **2023. urteak oinarri sendoa eta baldintza egokiak izan ditu 2024-2027 legegintzaldiko plangintza berriari ekiteko.**



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa:

- Plangintza hori osatzeko **Gipuzkoako Eskola Irekiak (GEI)** egindako ibilbidea baliagarria izan zaigu ekintza komunitarioaren inguruan egin beharreko ekintzak identifikatzeko. Era berean, **aurrerapausoak izan dira ekintza estrategikoei dagokienez**, eta hauteskunderen ondoren, gehiegi itxaron gabe, une horretarako planifikatutako ekintza gauzatu da —hau da, **udaleko ordezkari politiko berriei zuzendutako prestakuntza programa**—.
- **2023an eta 2024an garatutako Bidelaguntza prestakuntza programari esker** (“Udalak, partaidetza eta ekintza komunitarioa Gipuzkoan” jardunaldia eta udalei eskainitako tailerrak), udalerrri gehiago hurbildu dira Espaziora. Aukera ona iruditzen zaigu egiturak indartzeko eta lan ildo hori sendotzen jarraitzeko.
- **Erakunde arteko Espazioak** eta programa honetan parte hartu duten pertsonen balorazioek —alde batetik, jardunaldi zikloak eta, bestetik, prestakuntza tailerrak— erakusten dute ekintza **ondo hartu eta balioetsi dela**.



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA

11. **esparruaren** barruan (**Partaidetza esparruak**), hausnarketarako, elkar ezagutzeko eta Gipuzkoako herritarren erakundeekin prestatzeko gune gisa ulertzen da **Elkarteen Foroa**.

- 2023. urtea izan da foroaren hirugarren urte osoa: **4 osoko bilkura** egin dira, guztiak aurrez aurrekoak.
- Topaketen **batez besteko balorazioa 8,7 puntukoa** izan da **10etik**.
- **Aurrez aurreko saioei eman zaie lehentasuna**, parte hartzen duten erakundeek topaketa eta ezagutza espazioari ematen dioten garrantziagatik; horretaz gainera, kontuan izanik beti deialdi irekiak egiten direla, eta talde dinamikoa eta malgua osatu nahi dela, ardura eta kontu handia eskaini behar zaie bertaratuei saio bakoitzean.
- Guztira, Gipuzkoako **28 elkartek eta erakundek** modu aktiboan parte hartu dute Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Herritarren Partaidetzako Zerbitzuko taldearekin batera, Elkarteen Foroaren saioetan. **2022an baino % 33 gehiago**, hain justu.





4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA



Elkarteen Foroa:

- Aurrez aurreko saioen osagarri gisa, **Elkarteen Foroaren slack plataforman** 35 pertsonak edo erakundek parte hartu dute, zenbait elkarrizketa hariren bidez, zeinak aldi-aldi elikatzen baitira, foroan edo bertako kideen bitartez sortutako edukiekin. Elkarte batzuek deialdi propioak edo lotura interesgarriak partekatzeko baliatu dute plataforma, baina oraindik ere mugatua da elkarteen artean elkarrizketa joriak abiarazteari dagokionez.
- Hona hemen 2023ko balorazioaren ondoren sortu diren **ideia erabakigarri** batzuk:
 - 1) **Hausnarketa estrategikoa** eta begirada eraginkorragoz lan egitea. 2022an lehenetsitako gaiei erantzuteko zeregin zehatzak dituzten **bi lantalde** sortu dira, eta **haien talde lana osoko bilkurekin uztartu da**.
 - Lehenengo taldea Elkarteen Foroan bertan sortu da, ***udalentsako dokumentu bat sortzeko eta aurkezteko, asoziazionismoa kontuan hartzeko, balioesteko eta sendotzeko legegintzaldi berrian. PREST dokumentua***





4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA

Elkarteen Foroa:

- Eta bestea, berriz, Zerbitzuak aktibatu du, eta Foroko kide diren elkarte batzuek parte hartu dute, *helburu gisa harturik **elkarreek herritarren partaidetzarako dirulaguntzetara aurkezten dituzten proiektuei laguntzeko eta horien jarraipena egiteko sistema bat diseinatzea.***

2) **Parte hartzen duten elkarte eta erakundeen ezagutza, esperientzia eta jakinduria balioestea**, bai barneko prestakuntza pilulak partekatzeko, bai jakintza hori foroan landutako gaietan islatzeko.

3) **Foroaren sarrerak eta irteerak zaintzea, ekosistema ireki eta dinamiko gisa.** 2023an zehar, aniztasun handiagoa izan da kideen artean, eta, ekosistema bizi eta askotariko horrekin batera, Zerbitzuak **harrera protokolo bat** egin du, lehen aldiz agertzen diren elkartei sarrera errazteko.

Aldundiaren barneko lana eta lan transbertsala:

- o Era berean, **11. esparruaren** barruan (**Partaidetza esparruak**), Aldundiaren barneko lanarekin eta eginahal transbertsalararekin jarraitu da lanean departamentuen arteko talde teknikoaren bidez, zeinak aurrekontu irekietan jarri baitu arreta.



4. ildo estrategikoa

ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIA

12. esparrua (**Araudien garapena**) partzialki baino ez da garatu.




Foru Araua garatzeko **erregelamenduaren zirriborroa** egin bada ere, 2023an ez da onetsi.

Era berean, Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arauaren kanpo ebaluazioa enkargatu eta egin du IGOPEk, baina oraingoz ez dira egin prozedurako hurrengo urratsak.

Bestalde, **Kode Etiko bat garatzeko ekintzari dagokionez**, aurrera egin dugu: gida bat sortu dugu OGP sarearen esparruan, erakundeen barruan partaidetza prozesu baten bidez kode etiko bat onesteko eta Aldundian 2024rako barne prestakuntzako ikastaro bat diseinatzeko.



2023AN EGINDAKO EKINTZARIK NABARMENENAK



4. ildo estrategikoa
ORGANOAK, EGITURAK ETA ARAUDIAK



Ondorioak

2023a trantsizio eta balorazio urtea izan da. Alde batetik, ebaluazioak garrantzi handia izan du, eta Partaidetzari buruzko 5/2018 Foru Arauaren eta Foru Aldundiaren 2019-2023 Partaidetza Programaren balorazio prozesuak gauzatu dira, bai eta Zuzendaritzako partaidetza organo bakoitzarena ere. Bestetik, legegintzaldi berria prestatzen hasi gara, eta, horrekin batera, ekin diogu 2024-2027 Herritarren Partaidetzarako Programa diseinatzeari. Ildo horretan bertan, Gobernantza Departamentuko Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza zena, gaur egun, Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza bilakatu da.

2023ko ekitaldian garatutako ekintzen artean, hauek **nabarmendu** behar dira:

- **Gipuzkoako Herritarren Eskola Irekiak (GEI)** izan duen garapena. Horri dagokionez, nabarmentzekoa da, bereziki, **udalentsako prestakuntza eta laguntza prozesu bat diseinatu eta abian jarri izana**, eta **Euskal Herriko Unibertsitatearen Uda Ikastaroen (UIK) Fundazioarekin** izaniko lankidetzaren emankorra.
- **Udalen Erakunde arteko Espazioak** egindako lan bikaina. Ildo horretan, beste erakunde batzuekin eta Partaidetzako Zuzendaritzarekin batera, **Ekintza Komunitarioko Esparrua** definitu, onetsi eta gizarteratu da, eta proiektu pilotuak garatu dira.
- **Komunitatea sortzeko eta Aldundiaren eta lurraldeko udalen ekintza komunitarioko esparrua garatzeko abiarazi dugun lan ildoak.**



Ondorioak

- **Foru Aldundiko departamentuekin barne diagnostikoko prozesu bat diseinatu eta abian jartzea**, barne partaidetza elementu transbertsal bihurtzeko eta datorren legegintzaldirako partaidetza edo ekintza komunitarioko proiektuak identifikatzeko.
- **Elkarteen Foroaren barneko parte hartzeko espazioa sendotzea**, eta **proiektu pilotu** bat finkatzea, gure dirulaguntza lerroetako baten bidez laguntza jaso duten elkarten proiektuen jarraipena eta analisia egiteko.
- **Gizarte Kontseiluaren barruan sortutako bi lantaldeak eta kontseilukideak berritzeko prozesua**, legegintzaldi aldaketaren ondorioz.
- **Zozketa bidezko deliberazio esperientziak**, Gipuzkoako herritarren bi batzarren bidez gauzatu direnak, eta, bereziki, **Gipuzkoako Herritarren Batzarrak landa inguruneari eta klimari buruz partaidetzan oinarrituta egin duen deliberazio prozesua**.
- Innobasquerekin batera, **OGP-Euskadiko 3. konpromiso taldeak egindako bi gidak** (eten digitala eta erakundeen etika publikoa).
- Eta, azkenik, **Gipuzkoako Lurralde Historikoko 48 udalekin irailean eta urrian egin ditugun bisitak eta bilerak**, udal horietako arduradun politiko eta tekniko berriek bertatik bertara ezagutu gaitzaten eta, hala, gure laguntza eta zerbitzuak eskaini ahal izateko.